



UNITATE DIDAKTIKOAREN GIDOIA



PELIKULA IKUSTERA JOAN AURRETIK. IRAKASLEENTZAKO PROPOSAMENAK

Sariak

Fitxa teknikoa

Sinopsia

Filmaren kartelak abiapuntu,
elkarrizketarako gida

Elkarrizketa lantzeko
aholku metodologikoak

Inteligentzia anitzak. Motak

Haur eta gazteen eskubideak:
gaztetatik argi utz dezagun



HITZ EGIN DEZAGUN PELIKULA IKUSI OSTEAN. IKASGELARAKO PROPOSAMENAK

Filma hitz bakarrean

Pertsonaien deskribapena eta azterketa

Gidoiari buruz. Gidoi egokitua

Filmari buruz hitz egin dezagun:

- Aurora bere buruarekin
- Familiako harremanak
- Aurora eta musika-taldea
- Aurora eta literaturako irakaslea
- Aurora eta urtebetetze-festa

Sor dezagun gure istorioa "Bi belatzak"
ipuinetik abiatuz



1

**PELIKULA IKUSTERA
JOAN AURRETIK.
IRAKASLEENTZAKO
PROPOSAMENAK**

SARIAK

European Film Awards.
Publiko gaztearen saria

Berlingo Zinemaldiko
Kristalezko Artza.
KPlus belaunaldia

FITXA TEKNIKOA

Titulua: Aurora. Jamais contente

Herrialdea: Frantzia

Generoa: komedia

Nazionalitatea: Frantzia

Iraupena: 90 minutu

Estreinaldi-data: 2017ko ekainaren 30a

Zuzendaria: Émilie Deleuze

Ekoizpena: Patrick Sobelman,
Jeanne Lapoirie

Gidoia: Marie Desplechin,
Émilie Deleuze eta Laurent Guyot.

Marie Desplechin idazlearen *Le journal d'Aurore* trilogian oinarritua.

Argazkia: Jeanne Lapoirie

Musika: Olivier Mellano

Muntaketa: Frédéric Baillehaïche

ZUZENDARIA

IDHEC eta FEMIS zinema-eskoletan
ikasi zuen zinema Émilie Deleuze
zuzendariak.

Filmografia

1986	<i>Monsieur Pierre</i>
1990	<i>Coup de sang</i>
1991	<i>Va mourir</i>
1999	<i>Peau neuve</i>
2001	<i>Lettre à Abou</i>
2001	<i>Pas d'histoires!</i>
2003	<i>Mister V.</i>
2009	<i>À deux c'est plus facile</i>
2014	<i>Tout est permis</i> (TV)
2016	<i>Jamais contente</i>

ANTZEZLEAK

Aurora	LÉNA MAGNIEN
Auroraren ama	PATRICIA MAZUY
Auroraren aita	PHILIPPE DUQUESNE
Auroraren amona	CATHERINE HIEGEL
Literaturako irakaslea	ALEX LUTZ
David	NATHAN MELLOUL
Tom	ALEX AURIANT-BLOT




Bigarren
Hezkuntza
13-16
urte



1

**PELIKULA IKUSTERA
JOAN AURRETIK.
IRAKASLEENTZAKO
PROPOSAMENAK**



SINOPSISIA

Hamahiru urterekin, Aurorak ikasturtea errepikatu du, gogo gehiegirik gabe; gurasoekin etengabeko borrokan ari da. Ahizpa zaharrena egongo ez balitz bezala da; ahizpa txikiak kontraste nabarmena egiten du Aurorarekin (nota onak eta jarrera ezin hobe). Aurora ez da saiatu ere egiten bere ospe txarra aldatzen, atzera bueltarik ez duela baitirudi. Haren etorriak eta nortasun handiak ezustekoak ekarriko dizkio ikasturte berrian: rock talde batean hasiko da kantuan eta, institutura iristean, literaturako irakasle bat ezagutuko du, mentalitate irekikoa, eta haren begitan neskatoaren ibilbidea garbia izango da.



UNITATE DIDAKTIKOA LANTZEKO PROPOSAMENAK. AHOLKU METODOLOGIKOAK

Elkarriketa du oinarri proposamen metodologiko honek, eta, azken batean, etika bizirako prestakuntza bat da. Elkarriketarekin martxan jartzen dira garapen intelektualerako eta pertsonetikiko errespeturako beharrezko prozedura eta jarrerak; horrek bizikidetzan on baterako trebakuntza eskaintzen du.

KLIK

INFORMAZIO
GEHIAGO.
TESTUA ETA
GALDERAK.





**PELIKULA IKUSTERA
JOAN AURRETIK.
IRAKASLEENTZAKO
PROPOSAMENAK**



**FILMAREN KARTELAK ABIAPUNTU,
ELKARRIZKETARAKO GIDA**

Aurora, inoiz ez pozik filma ikustera joan aurretik, Giza Eskubideen Zinemaldiaren testuinguruan, ikus dezagun zer esaten diguten kartelek...

Ba al dakigu filma honi buruz ezer?

Zein da zuzendaria? Eta aktoreak?

Ezagutzen al duzue filmeko aktorerik?

- Zer esaten digu filmaren izenburuak?
- Zer informazio ematen digute kartelek?
Zein da kartel guztietan ageri den pertsonaia?
Informazio bera ematen digute?
Zer esan dezakegu honako hauei buruz:
koloreak, keinuak, letra-tipoak etab.?
Zeini zuzentzen zaio filma?
- Filmak kontatzen digunari buruzko hipotesi bat egin dezakegu?



**ERA ASKOTAKO INTELIGENTZIAK.
INTELIGENTZIA MOTAK**

KLIK

**INFORMAZIO
GEHIAGO**





**PELIKULA IKUSTERA
JOAN AURRETIK.
IRAKASLEENTZAKO
PROPOSAMENAK**

*Unicefek Giza
Eskubide eta Bake
Hezkuntzaren
Elkarteen Fororako
egindako testua.*

KLIK

TESTU OSOA
GAZTELANIAZ
HEMEN



**GAZTEEN ESKUBIDEAK:
gaztetatik argi utz dezagun**



“Haurren eta gazteen eskubideak” testuaren sarrera labur bat eskaintzen dizuegu; Unicefek idatzi zuen Giza Eskubide eta Bake Hezkuntzaren Elkarteen fororako.

Garrantzitsua iruditzen zaigu txiki txikitatik GIZA ESKUBIDE kontzeptua transmititzea eta jakinaraztea zenbat lan egin den eta egiten ari diren estatuek horiek aitortzen dituzten. Egin gaitezen Giza Eskubideen babesle!

Giza Eskubideen kontzeptuak oinarrian du pertsonok “eskubide naturalak” ditugula, eta ez direla Estatuaren aitortza formal baten arabera.

Giza eskubideen ezaugarriak: - Unibertsalak dira, hau da, pertsona guztien eskubideak dira kontuan izan gabe kultura, garai historikoa edo beste edozein desberdintasun. - Absolutuak dira, hortaz, gatazka-kasuetan, asebate behar dira beste edozein eskubide baino lehen. - Ukaezinak dira, beraz, edozein eztabaidaren gainetik daude, horiek bermatzen baitute berdintasun-plano batean hitz egin daitekeela. - Besterenezinak dira, alegia, ezin zaizkio pertsonari kendu, nahiz eta pertsona horrek urratu espresuki. - Utziezinak dira, inork ezin du ez dituenik esan. Denboraren joan-etorrian, giza eskubideen kontzeptua zabaltzen joan da, eskubide zibil eta politikoetatik eskubide sozial, ekonomiko eta kulturaletara.





2

**HITZ EGIN DEZAGUN
PELIKULA IKUSI
OSTEAN.
IKASGELARAKO
PROPOSAMENAK**



FILMA HITZ BAKARREAN

Borobilean eseri eta esango diegu hitz bakarrarekin filma deskribatzeko.

Honako hitzen zerrenda hau lagungarri:

Mundua nire aurka / Ulermen-eza / Tristura / Inork ez nau ulertzen / Berdin dio / Beldurra / Alaitasuna / Adiskidetasuna / Ausardia / Koldarkeria / Nekea / Zaintza / Haserrea / Bakardadea / Familia / Taldea / Aurkikuntza bat! / Erreferentziarik gabe.

Filma ikusi ostean, izenburua egokia iruditzen zaizue?

Zer sentimendu eragin dizu filmak?



PERTSONAIEN DESKRIBAPENA ETA AZTERKETA

Borobilean eserita jarraituko dugu elkar hobeto ikusteko eta, denon artean, arbelean, filmaren pertsonaiak zein diren idatziko dugu eta labur deskribatuko ditugu.

- AURORA
- Auroraren AMA
- Auroraren AITA
- Auroraren AMONA
- LOLA laguna
- Literaturako irakaslea, PLUMA JAUNA
- MARCEAU, Auroraren lehen mutil-laguna
- SAMIRA, laguna eta Areskiren ahizpa
- ARESKI, taldeko gitarra-jolea
- DAVID, gitarra-jolea
- TOM, taldeko bateria-jolea eta letra-egilea

Zer balore eta sentimendu lotuko zenizkioke pertsonai bakoitzari? Bat baino gehiago izan daitezke.

- Haserrea / Ulermen-eza / Segurtasun-eza / Ez dakit zer gertatzen zaidan / Ez dut inor jasaten, ezta neure burua ere / Zertarako saiatuko naiz... / Egoismoa
- Ulermena / Enpatia / Kariñoa / Adiskidetasuna / Solidaritatea
- Sormena / Talentua deskubritzea



**HITZ EGIN DEZAGUN
PELIKULA IKUSI
OSTEAN.
IKASGELARAKO
PROPOSAMENAK**



GIDOIARI BURUZ

Marie Desplechin idazlearen Le journal d'Aurore  trilogiaren egokitzapena da gidoia.



Elkarrizketa gidatzeko eta sustatzeko galderak.

- Zein da edo dira filmeko gaiak?
- Zer eszenak hunkitu zaitu gehien?
- Ez zaizu gustatu baten bat?



FILMEKO GAI ETA ELKARRIZKETAREN BATI BURUZ HITZ EGIN DEZAGUN

Borobilean eserita jarraituko dugu elkar hobeto ikusteko eta, denon artean, arbelean, filmaren pertsonaiak zein diren idatziko dugu eta labur deskribatuko ditugu.



Aurora bere buruarekin

- Zer esan nahi du Aurorak honako hauek esaten dituenean: "Etxegabe bat naiz". "Ez daukat etorkizunik". Eta honako hauek esatean: "Edozein tokitan kantuan hasten den lotsati tipiko horietako bat naiz. Zein frikia".
- Nondik dator Auroraren haserrea?
- Nola doakio bizitza?
- Iristen al zaio aita eta amaren maitasuna?
- Zer inteligentzia mota egotziko zenioke?





**HITZ EGIN DEZAGUN
PELIKULA IKUSI
OSTEAN.
IKASGELARAKO
PROPOSAMENAK**

- Zer-nolako tratua ematen dio Aurorak amari? Zuen ustez, zergatik egiten du? Arrazoirik badu?
- Eta Auroraren amak?
- Zer sentitzen du Aurorak lengoaiako ikasgaiari 9 bat jartzen diotenean?
- Zuen usten, Aurorari gustatzen zaio amak esaten dionean alabaz harro dagoela?
- Nola sentitzen da ama Aurorarekin, haren portaerarekin edo erantzuten dionean edo hitz egiten ez dionean?
- Zuen ustez, elkarrizketa ona izan da edo Auroraren amak ez daki alabarekin komunikatzen?

Familiako harremanak

AURORA ETA AMA. Filmeko 2 momentu:

**00:44:46. AURORA ETA AMA.
AURORAK EZ DU AINTZAT HARTZEN AMAK ESAN DUENA.**

Ama: Zutaz harro nago. Horrela jarraitzen baduzu...

Aurora: Horrela? Nola?

Ama: Nota onak ateratzen...

Aurora: Ez dakit egin ahal izango dudana. Jendea ez da aldatzen. Tximuak, esaterako, oihanetik ateratzen badituzu, akabo. Bueltatzen dituztenean, hondamendia izaten da.

Ama: Pozik nago hitz egin dugulako. Ondo lo egin, laztana. Elkarrizketa ona izan da.

01:06:00 AURORAK GAIZKI ERANTZUN DIO AMARI.

Aurora: Ezkontzaren gaiarekin lasaitu egin behar duzu.

Ama: Badirudi egoista baten aurrean gaudela. Ez duzu ezer ikusten, ez duzu ezer entzuten, zeure buruan eta zure arazoetan baino ez duzu pentsatzen.

Aurora: Eta zuk, ikusi al duzu zeure burua? Orraztuko bazina, asko irabaziko zenuke, ama... desastre bat zara; ez duzu lagunik. Nik ez dut horrelako bizitza bat nahi.

Ama: Zer esan nahi duzu zehazki? Itsusia eta tuntuna naizela?

Aurora: Bai. Bakarrik zaude. Ez duzu lagunik eta desastre bat zara.

Ama: Desastre bat naizela? Baina nor uste duzu zarela zu? Beti pentsatzen duzu arrazoia duzula eta dena dakizula. Begira nazazu! Zure begietara hutsala naiz, nazkagarri eta patetikoa. Baina zuk zer uste duzu! Begira nazazu! Zer adin duzula uste duzu?... (Aurora begira-begira geratzen zaio)

Nik ere begira zaitzaket... (Aurorak ezin dio eutsi eta alde egiten du). Hori da... joan zaitez...





**HITZ EGIN DEZAGUN
PELIKULA IKUSI
OSTEAN.
IKASGELARAKO
PROPOSAMENAK**

- Modu berean hitz egiten al die Aurorak amari eta amonari? Zein da desberdintasuna, halakorik balitz? Eta zergatik?
- Amona erreferentzia bat al da Aurorarentzat edo ama da gehiago?

AURORA ETA AMONA

00:30.38. AURORA LUZE ETA ZABAL HIZKETAN. AMONAREKIN FRIGIDOTASUNAZ HITZ EGIN DU.

Amona: Zer moduz etxean?

Aurora: Badakizu, lasai. Sophie indartsua da, eta amak maite du. Jessicak mutil-laguna du, eta Jessica Jessica da. Baina nik ez dut ezertarako balio. Traketsa naiz.

Amona: Nire ustez, ez. Niretzat zoragarria zara.

Aurora: Atsegina izan nahi duzu edo negar eginarazi nahi didazu?

Amona: Aski da!

Amona: Zergatik esan zenuen hori igandean?

Aurora: Frigidoa naizelako. Marceau-rekin irteten nintzenean, musu ematen genion elkarri, eskutik heldu, eta nik ez nuen ezer sentitzen.

Amona: Bada, orduan, ez zara frigidoa!

Aurora: Zergatik?

Amona: Hor akatsa mutila zelako!

Aurora: Lesbiana naiz, beraz...

Amona: Ez. Zure amari bezala gertatzen zaizu. Zure aita egokiena zela jakin arte, etxera mordoxka bat ekarri zituen... 45 (begi-keinua).

Aurora: Ez da posible!


Amona: Bai, bai.

Amona: Ez dituzu amaren tatuajeak ikusi?

Aurora: Amak tatuajeak ditu?

Aurora: Zein da gutxieneko kopurua pertsona egokia topatzeko?

Amona: Pertsonaren arabera, horretan ez dago araurik...
1, 2, 3, 4 sardina bakalau!





2

**HITZ EGIN DEZAGUN
PELIKULA IKUSI
OSTEAN.
IKASGELARAKO
PROPOSAMENAK**

AURORA, LAGUNAK ETA 4 ZENBAKIA

- Zer harreman dauka lagunekin?
- Zergatik da desberdina Davidekin duen harremana aurreko harremanen aldean?
- Filmaren zein momentutan ikusarazten digute desberdintasuna?

AURORA ETA PLUMA JAUNA LENGOAIAKO IRAKASLEA

**00:26:48. AURORAK ERANTZUTEN DU
PRINCESSE DE CLÈVES ELEBERRIARI BURUZ**



- Zure ustez liburuari buruzko azalpen ona egiten du?
- Zer irakasle aukeratuko zenukete? Zergatik?

**01:08:20. IRAKASLEAK FRANCIS PONGE
POETARI BURUZKO LIBURU BAT OPARITU DIO**

- Gustatu al zaio idazlea Aurorari?
- Gustatu al zaio taldeari Pongeren letra?
- Zuen ustez, Aurorarentzat aurkikuntza bat izan da?
- Laguntzen al dio irakasleak autoestimua hobetzen?



AURORA ETA URTEBETZE FESTA

- Zuen ustez, zeini bururatu zaio urtebetetze-festa antolatzea?
- Amari Oh Mamy Blue kantatzeak zer adierazten du?



**SOR DEZAGUN GURE ISTORIAO IPUINETIK ABIATUZ: BI BELATZAK **

Ariketa bat egitea proposatzen dizuegu. Istorio bat asmatu behar duzue, adibidez, egoera zail bat gainditu duen norbaitena, eta horretarako oinarritzat hartu behar duzue irakurri duzuen bi belatzen istorioa.